9. Si no se hubiese presentado ninguna candidatura o no se hubiera obtenido el resultado exigido en el número anterior para la elección del Decano o Director de centro, Departamento o Instituto, se abrirá un nuevo proceso electoral. En caso de repetirse la misma situación, la Junta de Centro o el Consejo de Departamento o Instituto adoptarán la decisión oportuna para cubrir la vacante.

10. Batzarreko edo kontseiluko idazkariak errektoreari jakinaraziko dio nor izan den hautetsia, gehienez ere hogei eguneko epean izendapena egin dezan.

11. Dekano edo zuzendariaren agintaldia lau urtekoa izango da eta, edozelan ere, gehienez ere bi aldiz jarraian egon ahalko da karguan. Hori horrela izango da, baldin eta barne arautegian bestelakorik jasota ez badago.

12. Artikulu honetako 2., 7., 8. eta 9. zenbakietan zehaztutakoa nahitaez bete beharko da kasu guztietan.

## III. KAPITULUA
## IKASTEGIKO DEKANO EDO ZUZENDARIA SUFRAGIO UNIBERTSAL HAZTATUAREN BIDEZ AUKERATZEKO PROZEDURA

### *23. artikulua*

1. Ikastegiko arautegian berariaz jasota badago, ikastegiko dekano edo zuzendaria sufragio unibertsal bidez aukeratu ahal izango da.

2. Dekanoa edo zuzendaria hautatzeko hauteskundeetako botoa haztatua izango da, ikastegiko talde banaketaren araberakoa. Taldeak eta bakoitzari dagozkion ehunekoak honakoak dira:

a) A taldea: unibertsitateko irakasleen kidegoetako funtzionarioak; %51

b) B taldea: bestelako irakasle eta ikertzaileak; %18

c) C taldea: ikasleak; %20

d) D taldea: administrazio eta zerbitzuetako langileak; %11

Botoen haztapena egiteko, hautagai zerrendei emandako baliozko botoak baino ez dira kontuan izango. Artikulu honen ondorioetarako, baliozko botoak hautagai bakar bat markatuta dutenak izango dira. Beraz, ez dira baliozko bototzat hartuko ez boto zuriak, ez boto baliogabeak.

Zenbaketaren akta egin ondoren, Hauteskunde Batzorde Nagusiak hautatutako hautagaia aldarrikatuko du behin-behinekoz.

3. Baliozko botoen haztapena kasuan kasuko hauteskunde batzordeak egingo du. Botoen haztapenari dagokion koefizientea lortzeko, zatiketa egingo da: 2. puntuaren arabera talde bakoitzari dagokion ehunekoa zati hautagai zerrenda bakoitzari emandako baliozko botoen kopuru osoa. Hauteskunde batzordeak koefiziente hori ezarriko die hautagai zerrenda bakoitzak talde bakoitzean lortutako botoei, ondorengo puntuan adierazitako irizpideei jarraituz.

4. Eragiketak egiteko, ondorengo formula eta II. eranskineko adibidea hartu behar dira kontuan. Gehiengoa osoa izango da boto haztatuen %50 baino gehiago lortu bada.

10. La candidatura que resulte elegida será enviada por el Secretario de la Junta o Consejo al Rector para que en el plazo máximo de veinte días proceda a su nombramiento.

11. La duración del mandato de los Decanos o Directores será de cuatro años. En ningún caso se admitirá más de una reelección consecutiva. Lo dispuesto en este número sólo será aplicable en defecto de previsión expresa en los respectivos reglamentos internos.

12. Lo dispuesto en los números 2, 7, 8 y 9 será de obligatoria aplicación en todo caso.

## CAPÍTULO III
## ELECCIÓN DE LOS DECANOS Y DIRECTORES DE CENTRO MEDIANTE SUFRAGIO UNIVERSAL PONDERADO

### *Artículo 23*

1. Cuando los respectivos reglamentos de centro expresamente así lo establezcan, el Decano o Director del centro podrá ser elegido mediante sufragio universal.

2. El voto para la elección del Decano o Director será ponderado por sectores de la Comunidad Universitaria de su centro de acuerdo con los siguientes cuerpos electorales y porcentajes:

a) Sector A, integrado por funcionarios de los cuerpos docentes universitarios, 51%.

b) Sector B, integrado por otro personal docente e investigador, 18%.

c) Sector C, integrado por los estudiantes, 20%.

d) Sector D, integrado por el personal de administración y servicios, 11%.

La ponderación se realizará teniendo en cuenta, en todos los sectores, el número de votos a candidaturas válidamente emitidos. A efectos del cómputo a que se refiere el presente artículo se considerarán votos a candidaturas válidamente emitidos las papeletas en las que figure señalado un único candidato. Por tanto no se considerarán votos a candidaturas válidamente emitidos los votos en blanco, ni los nulos.

Elaborada el Acta de Escrutinio, la Comisión electoral general procederá a realizar la proclamación provisional del candidato electo.

3. La Comisión electoral correspondiente será el órgano encargado de aplicar los coeficientes de ponderación a los votos válidamente emitidos. El coeficiente de ponderación vendrá dado por el cociente entre el porcentaje indicado en el punto 2 para cada sector y el total de votos válidos emitidos a las diferentes candidaturas en dicho sector. La Comisión electoral aplicará estos coeficientes a los votos obtenidos por cada candidato en cada sector siguiendo el procedimiento y las condiciones que se indican en el apartado siguiente.

4. Las operaciones serán realizadas de acuerdo con la fórmula siguiente y según el ejemplo del Anexo II. Se entenderá obtenida la mayoría absoluta cuando se obtenga más del 50% de los votos ponderados.

Formula aplikatzeko irizpideak:

Sa A taldea: unibertsitateko irakasleen kidegoetako funtzionarioak

Sb B taldea: bestelako irakasle eta ikertzaileak

Sc C taldea: ikasleak

Sd D taldea: administrazio eta zerbitzuetako langileak

Pr Talde bakoitzari dagokion ehunekoa (artikulu honetako 2. puntuan adierazitakoak)

Vv Hautagai zerrenda bakoitzak talde bakoitzeko lortutako baliozko botoak

Cp Talde bakoitzaren haztapen koefizientea

V1 1. hautagaiak lortutako boto kopurua

V2 2. hautagaiak lortutako boto kopurua

V3 3. hautagaiak lortutako boto kopurua

C1 1. hautagaiak lortutako boto haztatuen %

C2 2. hautagaiak lortutako boto haztatuen %

C3 3. hautagaiak lortutako boto haztatuen %

Talde bakoitzean hautagai bakoitzak lortu duen boto haztatua kalkulatzeko formula:

$$Cp = \frac{Pr}{Vv}, \quad Ci = Cp \times Vi \qquad i = 1, 2, 3, \ldots$$

Hautagai bakoitzak guztira lortutako boto haztatuak hautagai bakoitzak talde bakoitzean lortutako botoen batura izango da.

### *24. artikulua*

1. Lehenengo txandan hautetsi aldarrikatuko da baliozko botoen erdiak baino gehiago biltzen dituen hautagaia, aurreko zenbakiak adierazitako haztapenak behin aplikatuta. Inork lortuko ez balu boto kopuru hori, bigarren botazioa egingo da, baina horretan bakarrik lehiatu ahal izango dira lehen botazioan boto gehien lortu duten hautagai biak, lehen aipatutako haztapenak kontuan hartuta. Bigarren txandan botoen gehiengo soila lortzen duen hautagaia aldarrikatuko da hautetsi, botoen haztapena egin ondoren. Bigarren txanda lehenengo txandako emaitzak argitaratu eta gehienez 10 egunera egingo da.

2. Hautagai bakarra badago, lehen botazioa baino ez da egingo. Botazio horretan hautesleek alde, kontra edo zuri eman ahalko dute botoa. Hautagai bakar hori ikastegiko dekano edo zuzendari aldarrikatuko da, baldin eta emandako baliozko botoetatik aldeko botoak kontrakoak baino gehiago badira, 23. artikuluko 2. puntuan zehazten diren haztapenak behin aplikatuta.

Si llamamos,

Sa Sector A: profesores funcionarios de los cuerpos docentes universitarios

Sb Sector B: otro personal docente e investigador

Sc Sector C: estudiantes

Sd Sector D: personal de administración y servicios

Pr Porcentaje de cada sector (según el número 2 de este artículo)

Vv Votos válidos a candidaturas por sectores

Cp Coeficiente de ponderación de cada sector

V1 Votos recibidos por el candidato 1

V2 Votos recibidos por el candidato 2

V3 Votos recibidos por el candidato 3

C1 % de votos ponderados recibidos por el candidato 1

C2 % de votos ponderados recibidos por el candidato 2

C3 % de votos ponderados recibidos por el candidato 3,

en cada sector el voto ponderado de cada candidato se obtiene de la siguiente forma:

$$Cp = \frac{Pr}{Vv}, \quad Ci = Cp \times Vi \qquad i = 1, 2, 3, \ldots$$

El total de votos ponderados de cada candidato se obtendrá sumando los votos recibidos por el candidato en cada sector

### *Artículo 24*

1. Será proclamado, en primera vuelta, el candidato que reciba el apoyo proporcional de más de la mitad de los votos a candidaturas válidamente emitidos, una vez aplicadas las ponderaciones contempladas en el número anterior. Si ningún candidato alcanzara este número de votos, se procederá a una segunda votación a la que sólo podrán concurrir los dos candidatos más apoyados en la primera votación, teniendo en cuenta las citadas ponderaciones. En la segunda vuelta será proclamado el candidato que obtenga la mayoría simple de votos, atendiendo a las mismas ponderaciones anteriores. La segunda vuelta se realizará transcurridos como máximo 10 días desde la publicación de los resultados de la primera vuelta.

2. En el supuesto de una sola candidatura, únicamente se celebrará la primera vuelta. En ella los inscritos en el censo podrán votar a favor, en contra o en blanco de esa única candidatura. El candidato único presentado será proclamado Decano o Director de centro si obtuviera, de entre los votos a candidaturas válidamente emitidos, más votos favorables que en contra una vez realizadas las ponderaciones establecidas en el número 2 del artículo 23.

3. Hasiera batean hautagai bat baino gehiago egon arren hauteskunde egunean hautagai bakarra balego gainontzeko hautagaitzak bertan behera utzi dituztelako, txanda bakarra egingo da.

4. Hautagai hautetsia behin-behinekoz aldarrikatzen denean, erreklamazioak jarri ahal izango dira aldarrikapena egin eta hurrengo bi egunetan. Kasuan kasuko hauteskunde batzordeak bi eguneko epea izango du (erreklamazioak aurkezteko epea bukatzen denetik kontatzen hasita) erreklamazioak ebazteko, eta, ondoren, behin betiko aldarrikatuko du nor den hautetsia.

5. Hautagai hautetsia behin betiko aldarrikatzearen kontra errekurtsoa jar dakioke errektoreari hiru eguneko epean, eta hark bost eguneko epea izango du errekurtsoa ebazteko. Epe hori igarota ez badu horren gaineko erabakirik eman, erreklamazioa ez dela onartu ulertu beharko da eta administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango du erreklamazio egileak.

6. Hautetsia behin betiko aldarrikatu aurretik, Hauteskunde Batzorde Nagusiak baliogabetu egin ahalko du mahai bateko edo zenbaitzuetako botazioa, baldin eta botazioaren emaitzan eragina izan dezakeen akatsik egon bada. Horrelakoetan, berriro egingo da botazioa ahalik eta arinen.

7. Hauteskundeetarako deia egin eta hautagairik ez badago, edo aurkeztutako bakarrak ez badu hautetsi izateko behar besteko gehiengorik lortu, ikastegiko dekano edo zuzendariak jardunean jarraituko du, eta beste hauteskunde batzuetarako deia egingo du, gehienez ere hogeita hamar eguneko epean.

## IV. KAPITULUA
## SAILEKO EDO UNIBERTSITATEKO IKERKETA INSTITUTUKO ZUZENDARIA AUKERATZEKO PROZEDURA

### *25. artikulua*

1. Saileko zuzendaria saileko kontseiluak hautatuko du sailari atxikitako unibertsitateko irakasleen kidegoetako irakasle doktoreen artetik, eta errektoreak izendatuko du.

2. Hautagai bat ere ez bada hautetsi aldarrikatu, Unibertsitateen Lege Organikoko 58. eta 59. artikuluetako 3. paragrafoan aipatzen diren jakintza arloez eratutako sailetan bigarren txanda egingo da, eta horretan, hautagai izan ahalko dira sailera atxikitako unibertsitateko irakasleen kidegoetako ez doktoreak edo irakasle kontratatu doktoreak, beti ere, 20. artikuluan zehaztutakoari jarraituz. Lehenengo txandarako zein bigarrenerako hautagai zerrendak epe berean aurkeztu beharko dira.

3. En el supuesto de que concurriendo inicialmente varios candidatos, a la fecha de la votación éstos retiren sus candidaturas y quede un solo candidato, únicamente se celebrará la primera vuelta.

4. Contra la proclamación provisional de candidato electo cabe la interposición de reclamaciones en el plazo de dos días siguientes al de la publicación. La Comisión electoral correspondiente, resolverá las reclamaciones presentadas en el plazo de los dos días siguientes a la finalización del plazo para la interposición de aquéllas, haciendo pública la proclamación definitiva de candidato electo.

5. Contra la proclamación definitiva de candidato electo cabe interponer recurso ante el Rector en el plazo de tres días, quien deberá resolver el recurso en el plazo máximo de cinco días; transcurrido dicho plazo sin haber recaído resolución expresa, el recurrente podrá considerar desestimada su pretensión a los efectos de interponer, en su caso, el pertinente recurso contencioso administrativo.

6. Antes de la proclamación definitiva, la Comisión electoral general podrá declarar la nulidad de la elección en una o varias Mesas, si existiese algún vicio que pudiera alterar el resultado de la votación. En tal caso, se ordenará la repetición del acto de la votación en el plazo más breve posible.

7. Si convocadas las elecciones no se hubiera presentado ningún candidato, o el único presentado no hubiera obtenido la mayoría necesaria para ser proclamado, el Decano o Director del centro continuará en funciones y convocará nuevas elecciones en un plazo máximo de treinta días.

## CAPÍTULO IV
## DE LA ELECCIÓN DE LOS DIRECTORES DE DEPARTAMENTO E INSTITUTO UNIVERSITARIO DE INVESTIGACIÓN

### *Artículo 25*

1. El Director del Departamento es elegido por el Consejo del Departamento, de entre los profesores doctores pertenecientes a los cuerpos docentes universitarios miembros del mismo, y nombrado por el Rector.

2. En el supuesto de no resultar elegido ninguno de los candidatos, en los Departamentos constituidos sobre las áreas de conocimiento a que se refiere el apartado 3 de los artículos 58 y 59 de la Ley Orgánica de Universidades, se celebrará un segundo turno en el que podrán ser candidatos los profesores pertenecientes a los cuerpos docentes universitarios no doctores y los profesores doctores contratados miembros del Departamento, según el procedimiento señalado en el artículo 20. El plazo para presentar candidaturas será común para los candidatos de ambos turnos.

IV. TITULUA
GIZARTE KONTSEILUKO
ORDEZKARIEN IZENDAPENA

*26. artikulua*

1. Unibertsitateak Gizarte Kontseiluan izango dituen kideak Gobernu Kontseiluak aukeratuko ditu beren kideen artetik.

2. Gizarte Kontseiluko kide dira: errektorea, idazkari nagusia eta gerentea, bai eta irakasle bat, ikasle bat eta administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkari bat ere, Gobernu Kontseiluak beren kideen artetik aukeratuak.

3. Horiez gain, Gobernu Kontseiluak beren kideen artetik aukeratuko ditu Euskal Autonomia Erkidegoko legearen arabera dagozkion gainontzeko kideak.

4. Hautagaitzak idazkari nagusiari aurkeztu beharko zaizkio. Talde bateko kide kopurua kontuan hartuta ezinezkoa edo zaila baldin bada hautagai zerrendak adierazitako eran eratzea, Gizarte Kontseiluak, interesdunek esan beharrekoa entzun ondoren, ordezkariak aukeratzeko edo izendatzeko egoki diren irizpideak ezar ditzake.

5. Gobernu Kontseiluak isilpeko botazio bidez aukeratuko ditu Gizarte Kontseilurako ordezkariak. Gobernu Kontseiluko kide bakoitzak gehienez ere talde bakoitzeko hautagai bati eman ahal izango dio botoa. Ondorio horietarako irakasleek talde bakarra osatuko dute.

6. Boto gehien lortzen dutenak izango dira hautetsiak. Berdinketa egonez gero, unibertsitatean antzinatasun handiena duena izango da hautetsia, eta, horrela ere berdinketa egonez gero, nagusiena.

7. Gobernu Kontseiluko kide izateari uzteak Gizarte Kontseiluko kidea izateari uztea dakar. Ordezkoak hautatzeko, kasuan kasuko kidea aukeratzeko hauteskundeak egingo dira, artikulu honetan jasotakoari jarraituz.

V. TITULUA
UNIBERTSITATEKO KLAUSTRORAKO
HIRUGARREN ZIKLOKO ORDEZKARIAK
AUKERATZEKO PROZEDURA

*27. artikulua*

Unibertsitateko Klaustrorako ordezkariak aukeratzeko prozesuan, hirugarren zikloko ikasleen ordezkariak gainontzeko ikasleen hautagai zerrendetan joango dira, programa ematen duen sailak egoitza duen ikastegiko ikasleen zerrendetan, hain zuzen ere. Hirugarren zikloko ikasleen taldean sartuko dira Estatutuetako 49. artikuluan adierazitako ikerketa bekadunak.

TÍTULO IV
DE LA DESIGNACIÓN DE LOS
REPRESENTANTES AL CONSEJO SOCIAL

*Artículo 26*

1. Los representantes de la Universidad en el Consejo Social serán elegidos por el Consejo de Gobierno de entre sus miembros.

2. Son miembros del Consejo Social el Rector, el Secretario General, y el Gerente, así como un profesor, un estudiante y un representante del personal de administración y servicios, elegidos por el Consejo de Gobierno de entre sus miembros.

3. Además, el Consejo de Gobierno elegirá de entre sus miembros aquellos otros que la Ley de la Comunidad Autónoma del País Vasco le atribuya.

4. La presentación de candidaturas se hará ante el Secretario General. En el supuesto de que ante el número de integrantes de un colectivo sea imposible o difícil la presentación de candidaturas en la forma descrita en este Reglamento, el Consejo de Gobierno, oídos los interesados, podrá arbitrar las medidas oportunas para la elección o designación de los representantes respectivos.

5. Los vocales representantes del Consejo de Gobierno en el Consejo Social serán designados mediante votación secreta. Cada miembro del Consejo de Gobierno votará como máximo un candidato de cada sector. A estos efectos todo el profesorado constituirá un único sector.

6. Quedarán proclamados los candidatos que obtengan el mayor número de votos. En caso de empate quedarán proclamados los candidatos de mayor antigüedad en la Universidad y, supletoriamente los de mayor edad.

7. El cese como miembro del Consejo de Gobierno supondrá en todo caso la pérdida de la condición de miembro del Consejo Social. Las sustituciones se realizarán mediante elecciones parciales, de acuerdo con el sistema que se prevé en este mismo artículo.

TÍTULO V
DE LA ELECCIÓN DE LOS REPRESENTANTES
DEL TERCER CICLO EN EL CLAUSTRO
UNIVERSITARIO

*Artículo 27*

Los representantes de los alumnos de tercer ciclo en el Claustro Universitario se integrarán en las candidaturas de los alumnos del centro en el que tenga la sede el Departamento que imparta su programa. Se integrarán en el colectivo de estudiantes de tercer ciclo los becarios de investigación a los que se refiere el artículo 49 de los Estatutos.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

*Lehenengoa.–* Sail sortu berrietarako aldi baterako gobernu organoak

1. Sail berria eratu behar denean (saila sortu edo banatu egin delako), saileko kontseilua eratu bitartean eta aldi baterako, kide anitzeko organo bat eratuko da sailaren funtzioak bermatu ahal izateko.

2. Aldi baterako kide anitzeko organo horrek honako kideak izango ditu:

a) Burua: saileko hauteskunde batzordeko burua.

b) Idazkaria: saileko hauteskunde batzordeko idazkaria.

c) Sailean dauden unibertsitateko irakasle kidegoetako funtzionario guztiak, lan kontratudun irakasle iraunkor guztiak eta iraunkorrak ez diren irakasle doktore guztiak.

d) Sailari atxikitako gainontzeko irakasleen artetik ordezkari bat hiru irakasleko.

e) 1. zikloko ikasleen ordezkari bat eta 2. ziklokoen beste bat, ikasleen kontseiluak aukeratuak.

f) 3. zikloko ikasleen ordezkari bat. Aukeratzeko, aldi baterako kide anitzeko organoko buruak bilerarako deia egingo die bai saileko doktoregoko programa eta tesietan, eta berezko tituluetan matrikulatutakoei, bai ikerketako bekadunei.

g) administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkari bat.

*Bigarrena.–* Aldi baterako ikastegiko batzarreko kideak

1. Ikastegian Estatutuetara eta ikastegien oinarrizko arautegira egokitutako araudia onartu bitartean, ikastegiko batzarreko kideak honakoak izango dira, ikastegiko batzarrak Gobernu Kontseiluari bestelako proposamenik egin ezean:

a) dekanoa edo zuzendaria (batzarreko burua izango da);

b) idazkaria;

c) dekanordeak edo zuzendariordeak, ikastegiko arautegian adierazitako kopuruaren arabera;

d) ikastegiko administratzailea;

e) ikastegira atxikitako ataletako koordinatzaileak, horrelakorik egotekotan;

f) egungo barne arautegian adierazitako kide kopurua, unibertsitateko taldeen arabera honetara banatuta:

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

*Primera.–* Órgano transitorio de gobierno para los Departamentos de nueva creación

1.En los supuestos de constitución de un nuevo departamento por creación o división, transitoriamente, y hasta la formal constitución del Consejo de Departamento, se encomienda la adopción de las medidas estrictamente necesarias para asegurar el funcionamiento del Departamento a un órgano colegiado transitorio.

2. Este órgano colegiado transitorio estará compuesto por:

a) Presidente: El presidente de la Comisión electoral del Departamento.

b) Secretario: El secretario de la Comisión electoral del Departamento.

c) Todos los profesores funcionarios de los cuerpos docentes universitarios y contratados laborales permanentes del Departamento y todos los profesores doctores no permanentes

d) Un representante por cada tres profesores miembros del resto de profesores adscritos al Departamento

e) Un representante del colectivo de alumnos del 1er ciclo y un representante del colectivo de alumnos de 2.º ciclo, designados por el Consejo de Estudiantes

f) Un representante del colectivo de alumnos de 3er ciclo, que será elegido en la reunión de todos los estudiantes matriculados en Programas y Tesis doctorales y Títulos propios de Postgrado del Departamento y becarios de investigación que, a tal efecto, convocará el Presidente de este órgano colegiado transitorio.

g) Un representante del personal de administración y servicios.

*Segunda.–* Composición transitoria de las Juntas de Centro

1. Salvo que la Junta de Centro eleve al Consejo de Gobierno una propuesta distinta, en tanto no se aprueben los correspondientes Reglamentos de centro conformados a los Estatutos y al Reglamento marco de los centros, la Junta de Centro estará compuesta por:

a) El Decano o Director que la preside.

b) El Secretario.

c) Los Vicedecanos o Subdirectores en el número establecido en el Reglamento de cada centro.

d) El Administrador del centro.

e) En su caso, los coordinadores de las secciones de centro adscritos a las mismas.

f) El número de miembros actualmente recogidos en sus respectivos Reglamentos internos, distribuidos entre los distintos sectores universitarios de la siguiente manera:

%51 unibertsitateko irakasleen kidegoetako funtzionarioak;

%18 bestelako irakasle eta ikertzaileak;

%20 ikasleak;

%11 administrazio eta zerbitzuetako langileak.

Ordezkariak hondar handienaren sistema proportzionalari jarraiki banatuko dira. Boto berdinketarik egonez gero, gutxienekoa duen taldeari emango zaio ordezkaria.

2. Ikastegiko batzorde iraunkorreko kideak izango dira (horrelakorik dagoenetan): dekanoa edo zuzendaria; idazkaria; administratzailea; ikastegira atxikitako ataletako koordinatzaileen ordezkari bat; beste 10 kide honetara banatuta:

a) 5 funtzionario, unibertsitateko irakasleen kidegoetakoak (%51);

b) gainerako irakasle eta ikertzaileen ordezkari 2 (%18);

c) 2 ikasle (%20);

d) AZPko 1 (%11).

3. Ikastegiko batzarra eta batzorde iraunkorra arautegi honetako I. eta II. tituluetan zehaztutakoaren arabera aukeratuko dira.

*Hirugarrena.*– Aldi baterako saileko kontseiluko kideak

1. Sailean Estatutuetara eta sailen oinarrizko arautegira egokitutako araudia onartu bitartean, saileko kontseiluko kideak honakoak izango dira, ikastegiko batzarrak Gobernu Kontseiluari bestelako proposamenik egin ezean:

a) saileko zuzendaria (kontseiluko buru izango da);

b) idazkaria;

c) sailean dauden unibertsitateko irakasle kidegoetako funtzionario guztiak, lan kontratudun irakasle iraunkor guztiak eta iraunkorrak ez diren irakasle doktore guztiak;

d) sailari atxikitako gainontzeko irakasleen artetik ordezkari bat hiru irakasleko;

e) hirugarren zikloko ikasleen ordezkari bat;

f) bigarren zikloko ikasleen ordezkari bat eta lehenengo ziklokoen beste bat;

g) administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkari bat.

2. Saileko kontseiluan hogeita sei kide baino gehiago direnean, batzorde iraunkorra eratuko da, saileko kontseiluko kideen artetik eta artean aukeratua. Batzorde iraunkorreko osaera honako izango da:

a) zuzendaria;

b) idazkaria;

51% funcionarios de los cuerpos docentes universitarios,

18 % otro personal docente e investigador,

20% estudiantes,

11% personal de administración y servicios.

El reparto se hará por el sistema proporcional de resto mayor. En caso de empate el puesto en cuestión se atribuirá al cuerpo electoral minoritario.

2. La Comisión permanente del centro, caso de existir, estará integrada por el Decano o Director, el Secretario, el Administrador, un representante de los Coordinadores de las secciones de centro adscritos a las mismas, y 10 miembros más repartidos de la siguiente manera:

a) 5 funcionarios de los cuerpos docentes universitarios (51%),

b) 2 miembros de otro personal docente e investigador (18%),

c) 2 estudiantes (20%),

d) 1 PAS (11%).

3. La Junta de Centro y la Comisión permanente se elegirán según las Disposiciones recogidas en los Títulos I y II de este Reglamento.

*Tercera.*– Composición transitoria de los Consejos de Departamento

1. Salvo que la Junta de Centro eleve al Consejo de Gobierno una propuesta distinta, en tanto no se aprueben los correspondientes Reglamentos de Departamento conformados a los Estatutos y al Reglamento marco de los Departamentos, el Consejo de Departamento está compuesto por:

a) El Director del Departamento, que lo preside.

b) El Secretario.

c) Todos los profesores funcionarios de los cuerpos docentes universitarios y contratados laborales permanentes del mismo y todos los profesores doctores no permanentes.

d) Un representante por cada tres miembros del resto de profesores adscritos al Departamento.

e) Un representante de los alumnos de tercer ciclo.

f) Un representante de los alumnos de segundo ciclo y otro de los de primer ciclo.

g) Un representante del personal de administración y servicios.

2. En aquellos Consejos de Departamento con más de veintiséis miembros se constituirá una Comisión Permanente que será elegida por el Consejo de Departamento de entre los miembros del mismo y formada por:

a) El Director.

b) El Secretario.

c) sail ataletako koordinatzaileak;

d) irakasleen sei ordezkari: 5 ordezkari irakasle funtzionario, lan kontratuko irakasle iraunkor eta irakasle doktore ez iraunkor guztien artetik aukeratuak; ordezkari 1 sailari atxikitako gainerako irakasleen artetik aukeratua;

e) bekadun eta ikasleen ordezkari bat;

f) administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkari bat.

2. Saileko kontseilua eta batzorde iraunkorra arautegi honetako I. eta II. tituluetan zehaztutakoaren arabera aukeratuko dira.

*Laugarrena.–* Ikastegiko dekanoa edo zuzendaria aukeratzeko sistema

Ikastegian Estatutuetara eta ikastegien oinarrizko arautegira egokitutako araudia onartu bitartean, ikastegiko dekanoa edo zuzendaria ikastegiko batzarrak aukeratuko du.

*Bosgarrena.–* Arautegia onartu aurretik eratutako organoen agintaldia.

Ikastegi, sail edo ikerketa institutuetako arautegiak indarrean jarri aurretik Hauteskunde Arautegi Orokorrari jarraituz hautatutako kide anitzeko edo kide bakarreko organoen agintaldia gehienez ere urte bikoa izango da. Kasu honetan ez dira ezarriko agintaldien mugari buruzko arauak.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Saileko, ikastegiko edo institutuko arautegia Hauteskunde Arautegi Orokorrera egokitu bitartean, ez dira, inolaz ere, bertan behera utziko Estatutu edo arautegiei jarraituz egin beharreko hauteskunde prozesuak.

AZKEN XEDAPENA

Arautegi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean jarriko da indarrean, eta argitaratu ostean abian jarriko diren prozedura guztiei ezarriko zaie. Amaituta dauden prozesuak, ostera, baliodunak izango dira.

c) Los coordinadores de las secciones departamentales.

d) Seis representantes de los profesores, de los que cinco se elegirán de entre los profesores funcionarios, contratados laborales permanentes y profesores doctores no permanentes, y el sexto de entre el resto de profesores adscritos al Departamento.

e) Un representante de los becarios y estudiantes.

f) Un representante del personal de administración y servicios

3. El Consejo de Departamento y la Comisión permanente, en su caso, se elegirá según las Disposiciones recogidas en los Títulos I y II de este Reglamento.

*Cuarta.–* Sistema de elección del Decano o Director de Centro

En tanto no se aprueben los correspondientes Reglamentos de centro conformados a los Estatutos y al Reglamento marco de los centros, los Decanos y Directores de los centros serán elegidos por la Junta de Centro.

*Quinta.–* Duración de los mandatos de los órganos elegidos con anterioridad a la aprobación de sus Reglamentos

La duración de los mandatos de los órganos colegiados y unipersonales elegidos según este Reglamento de régimen electoral general pero con anterioridad a la entrada en vigor de los Reglamentos de centro, de Departamento o de Instituto Universitario de investigación será de un máximo de dos años, no siendo, en esos casos, aplicables las normas sobre limitación de mandatos de los órganos unipersonales.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

La adaptación de los Reglamentos de Departamento, centro e Instituto al presente Reglamento no paralizará en ningún caso los procesos electorales que estatutaria y reglamentariamente deban celebrarse.

DISPOSICIÓN FINAL

El Reglamento entrará en vigor a partir de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco siendo aplicable a los procedimientos iniciados con posterioridad a la misma, manteniéndose la validez de los procesos ya concluidos.

## I. ERANSKINA

Ordezkariak honela izendatuko dira hondar handienaren sistema proportzionalari jarraiki:

Hautesle errolda: 120
Esleitutako ordezkariak: 6
Emandako boto kopurua: 118
Boto baliogabeak: 2
Boto baliodunak: 116
Boto zuriak: zero

Boto baliodunak = Emandako boto kopurua – boto baliogabeak

Ondoko formula hau erabiliko da koefizientea lortzeko:

$$\frac{\text{Boto baliodunak – Boto zuriak} = 116}{\text{Ordezkari kopurua} \quad 6}$$

Koefizientea = 19,33 (hamartar birekin kalkulatuko da)

Banaketa honakoa izango da:

## ANEXO I

Asignación de representantes por el sistema proporcional de resto mayor

Censo electoral: 120
Representantes asignados: 6
Votos emitidos: 118
Votos nulos:2
Votos válidos: 116
Votos blancos: ninguno

Votos válidos = votos emitidos - votos nulos

Para hallar el cociente electoral se aplica la siguiente fórmula:

$$\frac{\text{Votos válidos- Votos blancos} = 116}{\text{N.º representantes} \quad 6}$$

Cociente = 19,33 (el cociente se calcula con dos decimales)

El reparto será como sigue:

| Hautagai zer. *Candidatura* | Boto kop. *N.º votos* | Koef. *Cociente* | Ordezkariak *Representantes* | Hondarra *Resto* | 2. banak. *2.ªdistibución* |
|---|---|---|---|---|---|
| *1* | *12* | *19,33* | *0* | *12* | *1* |
| *2* | *7* | *19,33* | *0* | *7* | |
| *3* | *5* | *19,33* | *0* | *5* | |
| *4* | *27* | *19,33* | *1* | *7* | |
| *5* | *6* | *19,33* | *0* | *6* | |
| *6* | *26* | *19,33* | *1* | *6* | |
| *7* | *15* | *19,33* | *0* | *15* | *1* |
| *8* | *18* | *19,33* | *0* | *18* | *1* |

Lehenengo banaketan 4. eta 6. hautagai zerrendek ordezkari bana lortuko dute.

Bigarren banaketarako zenbaki osoak erabiliko dira. Horrela, bada, 4. eta 6. hautagai zerrendek 19,33 erabili dutenez lehenengo banaketan, 7,67 eta 6,67 geratuko zaie, hurrenez hurren; beraz, bigarren bueltarako zenbaki osoak baino ez direnez erabiliko, hondarra 7 eta 6 izango da, hurrenez hurren.

Horrela, 1., 7. eta 8. hautagai zerrendek ordezkari bana lortuko dute.

Ordezkari bat dago oraindik esleitu gabe, eta hautagai zerrenda bi geratzen dira banaketarako (hondarra: 7): 2. eta 4. zerrenda.

Berdinketa dagoenerako, Hauteskunde Arautegi Orokorreko 8. artikuluko 5. puntuan jasota dago zein irizpide erabili: boto gehien lortu duen hautagai zerrenda; hala ere berdinketa badago, zozketa egingo da.

Irizpide horien arabera, beraz, 4. hautagai zerrendak lortuko du ordezkaria, horixe izan baita boto gehien lortu duena.

En la primera distribución las candidaturas 4.ª y 6.ª obtienen cada una un representante.

En la segunda distribución, las operaciones se hacen sólo con números enteros. Así que las candidaturas 4.ª y 6.ª, como han utilizado 19,33 en el primer reparto, se quedan con restos de 7,67 y 6,67 respectivamente, por lo que al hacerse las operaciones con números enteros y no fracciones pasan a tener de resto 7 y 6, respectivamente.

Por ello, las candidaturas 1.ª, 7.ª y 8.ª obtienen un representante cada una.

Resta por asignar 1 representante, para los cuales hay dos candidaturas - la 2.ª, y la 4.ª- con un resto de 7.

En el caso de empate el artículo 8 del Régimen general electoral en su punto 5 establece dos criterios de desempate: el de la candidatura más votada, y si también hay empate en el número de votos, el sorteo.

Aplicando estos criterios la candidatura 4.ª obtiene el último representante, al haber sido la más votada.

# II.ERANSKINA

## EMAITZEN SIMULAZIOA

| TALDEA | ESTATUT. % | HAUT. ZERREN. | BALIOZKO BOTOAK | BALIOZKO BOTOAK % | 1. HAUTAGAIAREN BOTOAK | 2. HAUTAGAIAREN BOTOAK | 3. HAUTAGAIAREN BOTOAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Sa: funtzionario doktoreak | 51 (153) | 1892 | 1514 | 80 | 600 | 500 | 414 |
| Sb: Bestelako irakasle eta ikertzaileek | 18 (54) | 1946 | 1362 | 70 | 550 | 450 | 362 |
| Sc: ikasleak | 20 (60) | 51000 | 7650 | 15 | 2000 | 3000 | 2650 |
| Sd: administrazio eta zerbitzuetako langileak | 11 (33) | 1300 | 910 | 70 | 400 | 300 | 210 |

## BOTO HAZTATUAK

| TALDEA | Pr | Vv | $Cp = \frac{Pr}{Vv}$ | C1 | C2 | C3 | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Sa: funtzionario doktoreak | 51 | 1514 | 0,03368 | 20,208 | 16,840 | 13,943 | 50,991 |
| Sb: Bestelako irakasle eta ikertzaileek | 18 | 1362 | 0,01321 | 7,265 | 5,944 | 4,782 | 17,991 |
| Sc: ikasleak | 20 | 7650 | 0,00261 | 5,220 | 7,830 | 6,916 | 19,966 |
| Sd: administrazio eta zerbitzuetako langileak | 11 | 910 | 0,01208 | 4,832 | 3,624 | 2,536 | 10,992 |
| GUZTIRA | | | | 37,525 | 34,238 | 28,177 | 99,94 |

Bigarren txandara 1. eta 2. hautagaia doaz.

## *ANEXO II*

### *SIMULACIÓN NUMÉRICA*

| *SECTORES* | *% ESTATUTOS* | *CENSO* | *VOTOS VÁLIDOS A CANDIDATURAS* | *VOTOS VÁLIDOS %* | *VOTOS AL CANDIDATO 1* | *VOTOS AL CANDIDATO 2* | *VOTOS AL CANDIDATO 3* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| *Sa, funcionarios doctores* | *51 (153)* | *1892* | *1514* | *80* | *600* | *500* | *414* |
| *Sb, otro personal docente e investigador* | *18 (54)* | *1946* | *1362* | *70* | *550* | *450* | *362* |
| *Sc, estudiantes* | *20 (60)* | *51000* | *7650* | *15* | *2000* | *3000* | *2650* |
| *Sd, personal de administración y servicios* | *11 (33)* | *1300* | *910* | *70* | *400* | *300* | *210* |

### *FORMA DE OBTENER LOS VOTOS PONDERADOS*

| *SECTORES* | *Pr* | *Vv* | $Cp = \frac{Pr}{Vv}$ | *C1* | *C2* | *C3* | *TOTALES* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| *Sa, funcionarios doctores* | *51* | *1514* | *0,03368* | *20,208* | *16,840* | *13,943* | *50,991* |
| *Sb, otro personal docente e investigador* | *18* | *1362* | *0,01321* | *7,265* | *5,944* | *4,782* | *17,991* |
| *Sc, estudiantes* | *20* | *7650* | *0,00261* | *5,220* | *7,830* | *6,916* | *19,966* |
| *Sd, personal de administración y servicios* | *11* | *910* | *0,01208* | *4,832* | *3,624* | *2,536* | *10,992* |
| *TOTALES* | | | | *37,525* | *34,238* | *28,177* | *99,94* |

*Pasan a segunda vuelta los candidatos 1 y 2*